

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 667/2016 Erabakia, urriaren 13koa, onartzen duena 333 partzuergoa eratzea Zuhatu Donemiliagako Administrazioarekin eta 334 partzuergoa Billodako Administrazio Batzarrarekin, eta 319 partzuergoa handitzea Guardiako Udalarekin; halaber, onartzen ditu "Basoa itxuraberritzea higitzeko arriskuan dauden hainbat menditan", loteka eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, kontratatzeko proiektua eta espedientea, 94.579,09 euroko zenbatekoaz (BEZa barne) eta 3 hilabeteko gauzatze epearekin**

2007. eta 2015. urteen artean, Arabako Foru Aldundiak parte hartu du Euskal Autonomia Erkidegoko 2007-2013rako EGEF Programa Eragilearen 2. ardatza "Ingurumena eta arriskuen prebentzioa" delakoan, "higitzeko arriskuan dauden mendiak basoberritzea" proiektuaren bidez. Proiektua gauzatu da nagusiki mendi degradatuko zonetan, Arabako erdialde eta hegoaldean, batez ere Arabako Errioxan, eta helburutzat izan du suteek edo larratze gehiegizkoaren presioak degradatutako espazioak bere oneratzeko basoberritzearen bidez, higaduraren eta lurzoru galtzearen sintoma nabarmenak izan baitituzte, edo prozesu horiek gertatzeko arrisku handia baitute.

2016. urterako, behin amaiturik EGEFen bidezko finantzaketa, asmoa da lan horiek egiten jarraitzea, Guardiako udalaren jabetzako mendiak basoberrituz; Zuhatu Donemiliagako 613 zenbakiko OPM "Abarico" izenekoan basoa sartzeko, eta, orobat, Billodako 502 zenbakiko OPM "Lacucheta eta Intxausti" izenekoan. Jardun horiek 3 lotetan banatu dira:

1. Lotea. "Basoberritze lanak egitea Guardiako Udalaren mendietan, Arabako Foru Aldundiarekiko 319 partzuergoa handituta"

2008. urtean zehar hasi ziren Guardiako Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuaren arteko harremanak definitzearen basogintza partzuergo bat eratzei aukera, udalaren lursail batzuk baso berritzeko. Hala, bada, inguru hura ikustera hainbat bider joan ostean eta gure irizpide teknikoak eta udal ordezkarienak alderatu ostean, proposatu zen udalaren zenbait lursail basoberritzea, San Ginésako erreka inguruetan, eta, gero, lan horiek udalaren beste zonalde batzuetara hedatzea, Guardiako Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren artean 319 zenbakiko partzuergoa eratuz.

2016ko apirilaren 21eko data daraman agirian, Guardiako Udalak eskatu zion Mendi Zerbitzuari udalaren jabetzako hainbat lursail basoberritzea Guardiako Udalarekin partzuergoan, eta hori oinarritzat hartuta idatzi zen dagokion proposamena, 319 partzuergoa hedatu eta Guardiako 16. poligonoko 158, 369, 370 eta 695 A lursailetan basoa berritzeko lanak gauzatzeko.

Behin proposamena idatzi ondoren, 19,5 hektareako azalera bere oneratzeko da, eta lanak kontratu bidez gauzatzeko aurrekontua 61.967,93 euro dira.

Guardiako hegoaldean daude batez ere basoberritu behar diren lurak, eta, oro har, mendi hegalak, muinoak eta ezpondak okupatzen dituzte, gehiegizko maldengatik landu gabe egon diren lurzatietan batez ere. Lur horien degradazio egoerak, zeina berdina baita bestalde Arabako Errioxako udalerrri askotan, erabat justifikatzen du lehengoratzeko xede nabarmena daukaten basoberritze lan horiek egin beharra.

2. Lotea. "Zuhatu Donemiliagako 613 zenbakiko OPM "Abarico" izenekoan basoa sartzeko, Donemiliagako udalerrian"

Sarrera erregistroaren data 2015eko urtarrilaren 29koa duen idazkiaren bidez, Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarrak idazki bat igorri zion Mendi Zerbitzuari, eskatuz ezabatzeko bere jabetzeko 613 zenbakiko OPM "Abarico" izenekoan luberri zati bat, arteraino ardiak larratzeko baliatzen zena, larre produktibitate urria zuela-eta.

Proposamen horretan, Arabako Foru Aldundiaren 3,68 luberri hektareatan basoa sartzea proposatzen da, hain zuzen, 631 zenbakiko OPM "Abarico" izenekoan, zuhaitzeko baso geruza bere oneratzearren larretarako interesa galdua duten sailetan, kontratu bidez gauzatzeko aurrekontua 22.443,92 euro direlarik.

3. Lotea. "Billodako 502 zenbakiko OPM "Lacucheta eta Intxausti" izenekoan basoa sartzea, Iruña Okako udalerrian."

Billodako Administrazio Batzarraren jabetzakoa da zuhaitzik gabeko lursail bat, 2,54 ha-koa, Zadorra ibaiaren ondokoa, gaur egun jakineko erabilerarik gabea. Ibaia aldi-aldi hazi egiten da, neguan, eta gainez eginik eremu hartako gunerik behearena urak hartzen du, eta ura atera beharrez lurra herrestan atera eta higatu egiten da. Arabako Foru Aldundiaren ekimenez idazten da proposamen hau, jalkinak atxikitze metodo eraginkorra izango delakoan landaretza zerrenda bat sortzea, bai eta trantsizio eremu bat ezartzea ere ibaiko landaretzaren eta mendi-artadi gune hezeaz peko eta inguru horretan bertakoa denaren artean.

Proposamen honetan proposatzen da OPMen katalogoan 502 zenbakia duen "Lacucheta eta Intxausti" mendi Billodako Administrazio Batzarraren jabetzakoa 2,41 ha basoberritzea, Iruña Okako udalerrian, kontrata bidez gauzatzeko aurrekontua 10.167,24 euro delarik.

Horregatik guztiagatik, proposatzen da honako partzuergo hauek eratzea:

1. Arabako Foru Aldundiaren eta Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarraren arteko partzuergoa, 333 zenbakikoa, hartuko duena, proposamen teknikoaren arabera, Donemiliagako 1. poligonoko 303-E zenbakiko katastro lurzatiaren zati bat, 3,68 hektareako azalera daukana guztira.

2. Arabako Foru Aldundiaren eta Billodako Administrazio Batzarraren arteko partzuergoa, 334 zenbakikoa, hartuko duena Iruña Okako 3. poligonoko 1287-A katastro lurzatia, guztira 2,41 hektareako azalera duena.

Onartzea Arabako Foru Aldundiaren eta Guardiako Udalaren arteko 319. zenbakiko partzuergoa zabaltzea, Guardiako 16. poligonoko 158, 369, 370 eta 695 A katastro lurzatiak sartuz, guztira, Katastroaren arabera, 25,48 hektareako azalarekin.

Hirugarrena. Proposatzen da onartzea "HIGADURA ARRISKUAREKIKO ZENBAIT MENDI BASOBERRITZEARI" dagokion proiektua eta kontratazioa, 85.980,99 euroko zenbatekoarekin, eta beste 8.598,10 euro BEZaren ehuneko 10ari dagokiona, guztira 94.579,09 euro egiten dutelarik, BEZa barne, honako lote hauekin:

1. Lotea. "Basoberritze lanak egitea Guardiako Udalaren mendietan, Arabako Foru Aldundiarekiko 319 partzuergoa handituta"

2. Lotea. "Zuhatzu Donemiliagako 613 zenbakiko OPM "Abarico" izenekoan basoa sartzea, Donemiliagako udalerrian"

3. Lotea. "Billodako 502 zenbakiko OPM "Lacucheta eta Intxausti" izenekoan basoa sartzea, Iruña Okako udalerrian."

Hautatutako esleipen irizpideak ezaugarrien taulako U atalean daude adierazita (eskaintza ekonomikorik onena eta gauzatze epea), eta justifikazioa da kontuan hartu beharra basoberritzeak egingo diren inguruen klima ezaugarriak direla-eta komeni dela basoa udazkenean landatzea, eta, beraz, sasoi horretan gauzatzeko direla lanak.

Kontuan hartuz ezen obra, hornidura eta zerbitzu kontratueterako administrazio klausula berezien pleguak Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 24ko 27/2012 Foru Dekretuaren bidez onartu zirela.

Horregatik, Nekazaritza Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onarpena ematea partzuergo hauek eratzeari:

1. Arabako Foru Aldundiaren eta Zuhatzu Donemiliagako Administrazio Batzarraren arteko partzuergoa, 333 zenbakikoa, hartuko duena, proposamen teknikoaren arabera, Donemiliagako 1. poligonoko 303-E zenbakiko katastro lurzatiaren zati bat, 3,68 hektareako azalera daukana guztira.

2º. Arabako Foru Aldundiaren eta Billodako Administrazio Batzarraren arteko partzuergoa, 334 zenbakikoa, hartuko duena Iruña Okako 3. poligonoko 1287-A katastro lurzatia, guztira 2,41 hektareako azalera daukana.

Bigarrena. Onarpena ematea honako partzuergo hau hedatzeari:

319 zenbakiko partzuergoa, Guardiako 16. poligonoko 158, 369, 370 eta 695 A katastro lurzatiak sartuz, guztira egiten 25,48 hektarea egiten dutenak, katastroaren arabera.

Hirugarrena. Proposatutako partzuergoetako bakoitza arautuko duten klausulak:

a) Dagokion udalak edo administrazio batzarrak bere gain hartzen du goian aipatu diren lursailak lagatzea Arabako Foru Aldundiak egingo duen basoberritzea gauzatzeko, mendia bere oneratzeko asmoz.

b) Arabako Foru Aldundiak, berriz, beregain hartuko du basoa sartzeko lanek eta azalera landatuak mantentzeak eragindako kostu osoa.

c) Partzuergoak 80 urte iraungo du, jatorrizko partzuergoa eratzeko erabakia hartu zenetik aurrera.

d) Landaketen aprobetxamendutik lor litezkeen onurak erdi bana egingo dira partzuergoko bi kideen artean.

Laugarrena. Onartzea "HIGADURA ARRISKUAREKIKO ZENBAIT MENDI BASOBERRITZEARI" dagokion proiektua eta kontratazioa, 85.980,99 euroko zenbatekoarekin, eta beste 8.598,10 euro BEZaren ehuneko 10ari dagokiona, guztira 94.579,09 euro egiten dutelarik, BEZa barne, honako lote hauekin:

1. Lotea. "Basoberritze lanak egitea Guardiako Udalaren mendietan, Arabako Foru Aldundiarekin dagoen 319 partzuergoa handituta", 61.967,93 eurotan (BEZaren ehuneko 10 barne), 40.1.06.45.00.619.01.03 aurrekontu aplikazioaren kontura, eta zuinketa egiaztatze akta sinatzen denetik aurrera 3 hilabeteko gauzatze epearekin.

2. Lotea. "Basoberritze lanak egitea, Zuhatzu Donemiliagako 613 zenbakiko OPM "Abarico" izenekoan, 22.443,92 euroko zenbatekoarekin (BEZaren ehuneko 10 barne), 40.1.06.45.00.619.01.03 aurrekontu aplikazioaren kontura, eta zuinketa egiaztatze akta sinatzen denetik aurrera 3 hilabeteko gauzatze epearekin.

3. Lotea. Basoberritze lanak egitea Billodako 502 zenbakiko OP mendi "Lacucheta eta Intxausti" izenekoan, Iruña Okako udalerrian, 10.167,24 euroko zenbatekoarekin (BEZaren ehuneko 10 barne), 40.1.06.45.00.619.01.03 aurrekontu aplikazioaren kontura, 3 hilabeteko epean gauzatzeko zuinketa egiaztatze akta sinatzen denetik aurrera.

Bosgarrena. Onartzea kontratazio espedientea, ezaugarrien taula barne eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 24ko 27/2012 zenbakiko Foru Dekretuaren bidez onartutako administrazio klausula berezien pleguak erabiltzea barne.

Seigarrena. Esleipen prozeduren artean publiziterik gabeko negoziatua hautatuko da.

Zazpigarrena. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritzak 94.579,09 euroko kreditua erreserbatuko du Arabako Foru Aldundiaren 2016ko ekitaldirako gastuen aurrekontuko 1.40.1.06.45.00619.01.03 "Eremu erre eta degradatuak bere oneratzea" gastu egoerako partidatik (xedapen erreferentzia: 16.1.16.105.4332/000), hiru lotetan banaturik, 3. paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Zortzigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea Arabako Foru Aldundiaren izenean sina dezan partzuergoa eratzeko kontratua, eta, halaber, lanak behar bezala egikaritu eta likidatzeko beharrezkoak diren ebazpen guztiak izapidetu eta onar ditzan.

Bederatzigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratu behar dela adieraztea.

Gasteiz, 2016ko urriaren 13a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTÁLORA**